

# HERRI eta IRRI

*x. amuriza*

1.MAILA



ELKAR

12/154-1

# HERRI eta IRRI

*x. amuriza*

1. MAILA

ELKAR

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren onespena  
jasoa (1983-5-10).**

ELKAR S.A.  
Esterlines, 10 - Donostia

Depósito Legal: NA. 595-1983  
ISBN 84-7529-068-X

---

Irarkola: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

## HITZAURREA

*HERRI ETA IRRI herrietako berrien irria da. Euskal Herriko herriak. Sail hau EGIN egunkarian agertu zen 80ko Irailaren 13tik 81ko azaroaren 21 arte.*

*Jendeak pozik irakurtzen zuen. Horregatik orain denak batera argitaratzen ditugu.*

*Liburu honetan LEHEN MAILA daukazu. Beste mailak ere argitaratuko dira. Gauza bat esan behar dizut. Mailak edo mailaketa hau ez da, behar bada, guztiz zehatza. HERRI ETA IRRI ez da Euskal Metodu bat. Ahalik gehien hurbildu. Baina berriak, gertaerak, ateraldiak eta pertsonaiak bortxatu gabe. Horregatik LEHEN MAILA hau ez da guztiz egia. Hala ere, zein da Lehen Maila? Metodu batetik bestera, alde haundiak daude.*

*Hemen ahalik errezen egiten saiatu nintzen. Errezago ezin da egin, kontakizuna desegin ezik.*

*Liburu honetan agertzen diren denbora aipamenak ez dira liburuaren argitalpenekoak, egunkarian agertu zirenekoak baizik. Kontuan eduki hori, berri okerrik ez ateratzeko.*

# ABADIÑO - BIZKAIA

## CARASOL ETA CARACOL

Gerra denbora da. Soloa Txiki Belgikara eramaten dute hamabi urtekin. Bueltan Mendiolako eskolara doa. Han maistrak «Cara al sol» agintzen du. Behin Soloa Txikik «Caracol» kantatzen du. Maistra haserretzen da eta galdetzen dio:

— *Sabe usted santiguarse?*

Mutila ere haserretzen da galdera horrekin. Hormatik salto egiten du. «Cabrona!» esan eta ihes egiten du. Gero Axpeko eskolara hasten da. Han ere hark «Caracol» kantatzen du. Behin eskolako haurrak Bilbora eramaten dituzte «Pelayos» aktura.

— Joango al naiz, ama? —eskatzen du mutikoak.

— Bai. Joan, ume —erantzuten dio amak.

Amak txapel eder bat jazten dio. Baina gero hurrei txapel gorria jazten diete. Soloa Txikik txapel gorria bota egiten du. Orduan egurra ematen diote. Soloa Txikik etxera ihes egiten du. Amak galdetzen dio:

— Nola hator (zatoz) hain arin, seme?

Mutikoak esaten du:

— Hauxe eta hauxe egin didate eta ihes egin dut.

Amak orduan esaten du:

— Ondo egin duk (duzu).

Mutikoa pozik eta lasai geratzen da. Soloa Txikik orain esaten du:

— Holako amak ez ziren denak orduan.

## ALABAREKIN ARAMAIORA

Kristobal Abadiñotik Aramaiora doa, bere alabarekin. Neskame etxe bat topatu nahi dute. Etxe batetan, sukaldea bete-beterik ikusten dute: lukainkak, urdaiazpi-koak, solomoak etab. Alabak esaten du:

— Aita! Hauxe da etxe ona.

Kristobalek esaten du:

— Egon, gehiago ikusi behar da.

Beste etxe batetan sukaldea hutsik dago. Kristobalek galdetzen du:

— Neskari behar al duzue?

Etxekoek erantzun dute:

— Ba, agian...

Kristobalek orduan:

— Hor beheko etxean sukaldea beterik dago.

Etxekoandreak esaten du:

— Bai hemen ere lehen, baina denak jan ditugu.

Orduan Kristobalek alabari esaten dio:

— Hauxe dun (da) etxe ona.

## TXAHALEKIN BILBORA

Luzio eta Billa Bilboko hiltegiara doaz txahalekin. Garai hartan «panezilloak» izaten ziren. Bazkaldu eta gero bakoitzak hamairu «panezillo» jaten ditu. Billak esaten du:

— Luzio, hauek papera daukate gainean.

Luziok:

— Orain arte ez al haiz konturatu?

Gero herrian Patxi Luziori galdetzen dio:

— Hamairu panezillo?

— Bai, baina Billak paper eta guzti —erantzuten du Luziok.

# AHETZE - LAPURDI

## MATTINEN TXAKURRA

Mattinen txakurak «Kiki» du izena. Mattinek iaz ixtripu gogorra izan zuen. Traktoreak azpian harrapatzen du. Mattin gaizki dago. Kikik auhen egiten du eta Mattin milikatzen du. Gero ambulanzia etorri eta Mattin klinika eramaten dute. Kiki traktorearen ondoan geratzen da. Auzokoek lotu eta etxera eraman nahi dute. Baina Kikik horzka egiten du. Hiru egunen buruan, Mattinen semeak traktorea etxera eramaten du. Orduan Kiki ere traktorearen atzetik doa. Baina maiz joaten da ixtripu tokira.

Behin Mattinen abotsa entzuten du telefonotik. Kiki eroturik jartzen da. Geroztik telefonoaren azpian dago beti. Noiz arte? Mattin etxera etorri arte. Gaur ere Kiki telefonari trebea da. Telefonoak jotzen du. Inor ez dago etxean. Etxekoek soroan edo kanpoan dira. Orduan Kiki sorora doa eta zaunka egiten du.

— Telefonoa jotzen ari da —esaten du.



Historio hau bukatu eta Mattinek esaten du:  
— Bestek ez dakit, baina txakurrak maite nau.

## IA BERTAN HIL

Mattin eta Xalbador Amerikara doaz. Hilabete egingo dute. Mattinek osaba bat uzten du etxean. Zertarako? Etxea, emaztea eta mutikoa zaintzeko. Mattinen semeak orduan bederatzi urte ditu.

Gau batez gizon batzu datoz. Sukaldeko leihoa jotzen dute. Ilun dago. Mattinen galdera egiten dute. Baina ez dute nor diren esan nahi. Mattinen emaztea bildurtzen da. Osaba lo dago goian. Itzartzen da eta zizpa hartzen du. Dinbi-danba tiratzen du. Gizonak ihesi doaz. Osaba jaisten da eta etxeari buelta ematen dio. Ez dabil inor.

Berrero etxean sartzen da eta zerbait entzuten du gela batetan. Lapurrak edo gizonak direla uste du. Osabak eta Marik atea poliki-poliki irekitzen dute. Osaba zizpaz apuntatzen ari da. Nor da? Inork ez du erantzuten, baina zerbait entzuten da. Apur bat irekitzen dute eta Kikiren murrta ikusten dute. Mattin Amerikatik itzultzen da. Las-ter jakiten du nor izan diren.

Gizon haiek «bertso berriak» jartzea nahi zuten. Zergatik? Neska batek senargai nekazaria utzi eta berria hartzen du. Berri hau postaria eta adinekoa da. Gizon haiek gauza horren «bertso berriak» nahi dituzte. Horregatik gauzez eta isilka datoz. Ez dute izenik esan nahi. Eta osabak ia hiltzen ditu.

## ARIATZA - BIZKAIA

### ZAHAGIA ETA MAKAILOA

Ariatzan ohitura berezi bat dago: zahagia. Zer da hau? Noiz sortu da? 1.889an gaude. Santa Gurutze bigarrenean aurrekua izaten da. Gero ardoa ematen da. Baina Agedaren taberna urruntxo dago. Aitita Bixentek pentsatzen du:

— Zergatik ez zahagi bat hona ekarri?

Lau mutil Muxikako udaletxera doaz. Aitita Bixente, Nikolas Uribe, Ziriako Sardui eta «letradua» (Damaso Uruburu). «Tretatxu» alkateak ezetz esaten du. Zergatik?

— Tabernari kalte egingo zaio.

Gero lau mutilek alkateari harrika egiten diote. Alkatea etxera sartzan da eta lau mutilak harrika eta harrika etxearen kontra. Tretatxuk leihotik esaten du:

— Neuk emango dizuet zuei saria. Mikeleteak ekarriko ditut.

Mutilek erantzun:

— Beno! Arratsaldeko bostetan etorri plazara.

Arratsaldean alkateak baimena ematen du. Hala ekar-

tzen dute lehenengo zahagia. Geroztik urtero egiten da zahagi ekartzea. Eta makailo jana labe batean.

«Loma» mutilzaharrak Ordorikako jendea ekartzen du: Kitarra martxatxo bat jo, belauniko jarri eta auzoari agur egiten dio hiru egunetarako. Txakaleko jendea Tio Trenerok ekartzen du. Honek dultzaina eta panderoa jotzen du. Uspitxatik Kepa Enbeita Urretxindorrak ekartzen du jendea. Honek dultzaina jotzen du. Zahagiaren arima Aitita Bixente da. Honek bakea eta umorea maite du. Beste herri eta auzoak ere gonbidatzen dituzte zahagira: Ajangiz, Foru, San Kristobal, Aranbarrene, Meata, Kanpantxu, Gorozika etab. Gero ariatzarrak hauen jaietara ere gonbidatzen dituzte.

## **GERRA ETA GERRA ONDOA**

Gerrako hiru urtetan ez dago jairik. Baina bi edo hiru zahar labean batzen dira eta zahagia ospatzen dute, gazteen izenean. Gerra ondoan, lehenengo urtean, berriro jaiak eta zahagia. Baina ez dago makailorik. Urrufino Sardui Larrako komentura doa. Baina fraileek ere ez daukate makailorik. Orduan sardina kaxa bat ekartzen dute: 500 sardina zahar. Eta hiru zahagi, bi beltzak eta bat zuria. Bakoitzak ehun litro ditu. Beraz 300 litro ardo. 57 lagun batzen dira eta sardina eta ardo guztiak gau batean amaitzen dituzte. Gerra ondoko gosea eta afana. Biharamonean Aitita Bixentek gurdian entregatzen ditu gizonak etxera. Aitita Bixente pozik dago: zahagiaren ohi-tura aurrera doa.

## ARRASATE - GIPUZKOA

### TIBURTZIO LEGOA

Arrasateko mutilzahar bat zen. Beti zeruaren arduraz ibiltzen zen. Nola zerura joan? Pentsatzen eta pentsatzen ari da. Azkenean pentsatzen du: Arantzazuko komentura joan. Lehenengo postulante hasten da. Gero sorotan eta baratzean lan egiten du. Legoa da. Horrela laurogei urte egiten ditu. Fraile nagusiak esaten dio:

— Nahikoa egin duzu. Orain lan samurra emango dizut: kanpaia jo.

Kanpaiak goizeko seiretan hasten dira. Horretarako bostak eta erdietan jaiki behar du. Oso goiz jaiki behar du beti. Neguan batez ere. Behin goizeko kanpaiak jutzen ari da eta bere buruari esaten dio:

— Ai Tiburtzio! Hasta dónde has llegado? Eta orain zerurik ez badago, estás copado.

## ETXAURREREN INFORMEAK

Etxaurre lantegi batean ari da. Pertsonal buru egiten dute. Haren esaerak eta erdarakadak famatuak dira. Behin mutil bat presentatzen diote. Lana nahi du. Etxaurrek mutilari begiratu eta esaten du:

— Parece buen chico. Tiene cara da pastel.

Baina beste mutil bat ez zen hain pastela. Etxaurrek lantegitik bidaltzen du. Zergatik? Neska bati zirri egin diolako.

— *Fulano, despachado por mano de obra.*

## DIN ETA DON

Hau ez da Arrasatekoa. Gertaera hau Araozkoa da. Araoz Oiñatikoko auzo bat da, Arantzazuren azpian. Baina Arrasaten kontatu digute eta hemen jartzen dugu. Araotzen, aintzina, kanpai handi bat dago. Kanpai handi harekin bi kanpai egin nahi dituzte, bata handia eta bestea txikia. Orduan kanpaiak Gasteizen egiten dira. Gasteizen erdaraz egin behar da. Araoztar batek erdara pixka bat badaki eta huraxe bidaltzen dute. Araoztarra joaten da eta honela azaltzen du bere mandatua:

— Una campana, dos campanas. Uno de din y otro de don.

- Qué dise, qué dise? —galdetzen du kanpaigileak.  
— Kerixa denboran etortzeko! —erantzuten dio. (Kerixa: Gerezi).

## **JAINKOA KONPROMISOAN**

Goikoetxea abokatua futbol partidura joan zen. Arbitroak penalty jo zuen. Atezainak (porteruak) «aitaren» egiten du. Txutatzaileak ere «aitaren» egiten du. Orduan Goikoetxeak esaten du:

— Konpromiso ederrean ipini dute Jainkoa.

## ATAUN - GIPUZKOA

### PAKILLO

Pakillok lantegitik alde egiten du. Denbora asko pasatzen da. Gero berriro lantegira doa. Eguerdiko hamabietan doa eta galdetzen du:

— Ba al dago lanik?

Nagusiak erantzuten du:

— Eguerdiko hamabietan lan eske?

Pakillok esaten du:

— Ez da niretzat. Filetesentzat da. Oraindik ohean dago.

Filetes bere lagun bat du.

### PELLO

Pello ere lan eske doa. Nagusiak esaten dio:

— Zuretzat ez dago lanik urte batzutan.

— Hain gaizki portatu al naiz? —galdetzen du Pellok.

— Etorri hemendik urtebetera —esaten dio nagusiak.

— Goizetik ala arratsaldetik? —galdetzen du Pellok.

## SANANTON

Lazkaon bi mozkor daude kalean. Eguna argitzen ari da. Batak esaten du:

— Hori eguzkia da.

— Ez, hori ilargia da —esaten du besteak.

Sananton pasatzen da eta esaten diote:

— Aizu, hemen eztabaida bat daukagu. Batak hori eguzkia dela eta besteak ilargia dela. Zer esaten duzu zuk?

Sanantonek erantzuten du:

— Ez dakit. Ni ez naiz hemengoa.

## APAIZAREN TXERRIA

Don Frantziskok txerria hiltzen du. Gatza eman eta urdaiazpikoak zintzilik ipintzen ditu. Baina bat falta da. Don Frantziskok Dorote dendariari esaten dio:

— Aizu, Dorote! Txerriak zenbat hanka dauzka?

Neskamearen aurrean esaten du hori. Dorotek lau esaten du. Orduan Don Frantziskok:

— Eta gureak nola dauzka, ba, hiru?



## ODOLKI LAPURRA

Beste behin ere Don Frantziskok txerria hiltzen du eta igandeko sermoian esaten du:

— Bart odolkiak faltatu zaizkit. Lapurra hementxe dago. Odolkiak jan ditu eta ezpainak markaturik dauzka.

Orduan gizon batek muturrak garbitzen ditu. Halaxe salatzen du bere burua.

## SERMOI ELEKTORALA

Bozketak dira herrian: karlistak eta liberalak. Emakumeek Don Frantziskori galdetzen diote:

— Nori emango diogu botoa?

Don Frantziskok esaten du:

— Egin lo lasai. Bihar goizeko mezan esango dut. Eguna heltzen da eta Don Frantziskok mezatan esaten du:

— Orate frates. Karlistak eta liberalak, denak dira igoalak. Kredo in unum Deum.

## FIIIU!

Norbaitek bekatu handia konfesatzen du. Don Franziskok konfesalekuan txistua jo eta hots egiten du:

— Fiiiu! Handia duk (da) hori!

Elizako guztiek entzuten dute.

## PERU ETA KANPAINE

Peru eta Lorentzo Kanpaine lagun handiak ziren. Egu-nero tabernan egoten ziren. Estankoan egoten ziren. Behin Kanpaineek Peruri esaten dio:

— Peru, hau da hagineko mina.

— Hori atera egin behar da —esaten dio Peruk.

Peru eta Kanpaine San Martina doaz. Han Pedro Marik ateratzen du. Atea jotzen dute eta:

— Nor da?

— Peru eta Kanpaine.

— Zer behar duzue?

— Hagina atera.

Kanpaine aulkian eseri da eta haginlariak galdetzen dio:

— Zein hagin, Lorentzo?

— Peruk badaki.

— Zein da, Peru? —galdetzen du haginlariak.

— Jo bat. Edozein —esaten du Peruk.  
Zer egiten dute? Sanoa atera eta txarra utzi.

## **GANIBET HANDIA**

Kanpaine suhiarekin haserre dabil. Behin Sutegin, ganibet handi bat agintzen du. Errementariak ganibet handia egiten du. Kanpaineri ematen dio eta esaten dio:

— Hemen daukazu ganibeta.

— Ospa Dios! —esaten du Kanpaineak—. Hau suhiaren tripetan estrainatu behar dut.

## **KANPAINE GAIZKI**

Behin Kanpaine gaizki dago. Enbor handi batek azpian harrapatu du. Saihets azpian aberia handia egin dio. Odola borbor botatzen du. Gaizki dago eta galdetzen diote:

— Zer hartuko duzu, Kanpaine?

— Trago bat ardo —erantzuten du hark.

## MAITTALO NEGARREZ

Lizarragan baso gizonak ari dira. Basoan lan egiten dute. Maittalo ere han ari da. Behin ostatuan bazkaria egiten dute. Garbantzua ederki daude. Maittalok jan eta jan egiten du. Lehertu arte. Gero arkumea ekartzen dute. Maittalok hura ezin du jan eta negar egiten du. Negarrez esaten du:

— Nik ez jakin behar, gainean hau zegoela!

# AULESTIA - BIZKAIA

## **BESTE HIRUROGEI HOGERLEKO**

Aulestiko baserri batek Sakoneta du izena. Hango gizonari ere Sakoneta esaten zaio. Sakoneta hil zen. Gizon indartsua zen. Baita gizon lasaia ere. Behin Sakonetak apustu bat egin du: Berrogeita hamar kiloko zakua Santa Eufemiako ermitara baietz eraman. Nondik? Aulestiko plazatik. Ermita hura haitz puntan dago. Plazatik haitz puntara, kilometro asko dago. Eta oso aldapa handia. Hirurogei hogerleko da jokoa. Sakonetak hondar zaku bat bizkarrean hartzen du. Berrogeita hamar kilo ditu. Badoa goruntz. Herriko gazteria guztia atzetik doa. Urregarai-ko tontorrera heltzen da. Han dago ermita. Zakua bizkarrean dauka eta esaten du:

— Beste hirurogei hogerleko Aulestiko plazan utzi baietz.

Aulestiar gazteak isilik geratzen dira.

## HARRIEKIN HIL ERE

Sakoneta gaizki dago. Eritasun txar bat dauka. Oso makal dago. Ez dauka indarrrik. Azala eta hezurra baka-  
rrik dauka. Etxean, haren gela ondoan, hiru harri daude.  
Bata zortzi arroakoa, bestea hamarrekoa eta hirugarre-  
na hamabikoa. Apaizak elizakoak ematen dizkio. Eta gero  
esaten dio:

— Ai, Joakin! Harri horiek orain alboan utzi behar.

— Oraintxe ere —esaten du Sakonetak— erdiko ho-  
rri helduko banio...

## ASTOA KANPAI SOKAN

Aulestin jende indartsua zen. Baita gauzaleak eta  
errondariak ere. Non ez orduan? Herrietan ganberrada  
handiak egiten ziren. Behin hauxe gertatzen da.

Gauerdia da. Goizaldea ere bai. Mutilek ezin dute etxe-  
ra joan. Zerbait handia egin nahi dute. Elizpean kanpai  
soka dago zintzilik. Astoa kanpai sokari lotzen diote. As-  
toari ipurdian bipermin apur bat ematen diote. Orduan  
astoa tiraka hasten da, hara eta horra. Eta kanpai han-  
dia jo eta jo. Herri guztia itzartzen da. Herri guztia alar-  
matzen da. Batzuk sua pentsatzen dute. Beste batzuk ez-  
behar handi bat. Kanpaiak, ordea, ez du ritmoz jotzen.  
Zer da hori? Eliza aurrera biltzen dira eta gure astoa han.  
Asto bedekatua.

## SORGINAK ETA LAMINAK

Aulestiko auzategi batek Narea dauka izena. Han Uriengo aita-alabak soroan lanean ari dira. Behi uztarriarekin ari dira. Iluntzea edo ilunabarra da. Katu beltza agertzen zaie. Neskak makilaz jotzen du eta katua handiagoa egiten da. Berriro makilaz eman eta gehiago hazten da. Aitak akuiluaz jotzen du eta berriro katua handitu egiten da. Aita-alabak bildurtzen dira. Behiak askatu eta etxera doaz.

Artetxeako aitonari behin txerri aldra haundia agertzen zaio. Aitona bildurtzen da eta esaten du:

— Jesus! Hau txerri aldra haundia!

«Jesus» esan eta txerriek alde egiten dute.

Behin aulestiar batek katu beltz bat ikusten du. Bidean dago eta ez da baztertzen. Katu beltza berari begirabegira dago. Gizonak katua aihotzez jotzen du. Eta aurreko hanka bat mozten dio. Biharamonean auzoko andrea besamotz agertzen da.

## LAMINERREKA

Aulestiko errekatxo batek Laminerreka dauka izena. Artetxea baserriko lurretan, baserritik ehun metro tara, harri bat dago errekan. Harri hori laminena da. Zertara-

ko? Harri horretan lixiba jotzen dute. Laminek erreka horretan orrazten dituzte beren ileak. Motrollo mendiruntz perretxiko bila joan eta harri horren ondotik pasatu behar da.

## AITONA ETA SORGINAK

Antxina, Artetxeako aitona Gernikatik dator. Oinez dator eta sekulabelar hazia dakar bizkarrean. Sekulabelarra belar gozoa da. Zakukada bat dakar. Bidean lapurrek edo sorginak irten zaizkio. Sekulabelar hazia kendu eta Arratzura bidaltzen dute, ogi eske. Aitonak ogia ekartzen du eta lapurrek edo sorginek oso ondo hartzen dute. Hazia berriro zakuan sartu eta etxeruntz abiatzen da aitona. Baina berriro sorginek hartzen dute. Hazia galdu eta gau guztian hara eta hona erabiltzen dute. Azkenean Zior-tzakortara jotzen du gure gizonak. Hango bi gaztek etxeruntz laguntzen diote. Garatxa gainean aitona esaten du:

— Beno! Hemendik bakarrik ere joango naiz.

Gizona Artetxearentz abiatzen da eta sorginek Narea mendira eramaten dute. Han erabiltzen dute hara eta hona. Biharamonean eguna argitu eta gero heltzen da etxera. Soinekoak urraturik eta bera erdi gaixorik. Handik laster hil zen Artetxeako aitona.



# BAIGORRI - NAFARROA BEHEREA

## PETTAN ETA TRENA

Pettan bizikletan doa. Baigorriko trenbiderantz doa. Trenbidera iristen da. Baina ezin du pasatu. Trena dator eta geratu egin behar du. Zergatik? Pettan trenbidean dago. Txoferrak esaten du:

- Aizu, jauna. Ez al duzu beste biderik?
- Nik bai, zuk ez —erantzuten du Pettanek.

## MATIAS ETA KAIET

Matias eta Kaiet ostatutik etxera doaz. Matias zapatagina da eta Kaiet okerra (tuertoa). Biak kantatzen ari dira. Gauerdia da eta kantari doaz. Jendarmeeek entzuten dute eta etortzen dira. Hartu eta jendarmategira eramaten dituzte.

— Zergatik da hau? —galdetzen dute Matiasek eta Kaietek bidean.

— Kaleko jende guztia iratzartzen duzue —erantzuten die jendarmeak.

Jerdarmategian sartzen dituzte. Matias eta Kaiet bi bozetan hasten dira. Orroaka kantatzen dute. Jendarmeen familia guztiak itzartzen dira. Haiekin ezin dute gauza onik egin eta berriz libratzen dituzte.

## **ATSOA ETA AKERRA**

Atso zahar bat akerrarekin bizi zen. Behin adiskide bat etortzen zaio. Aspaldiko adiskidea da. Bisita egiten dio. Akerra ikusten du eta galdetzen dio:

— Kaixo, Mariana. Akerrarekin bizi al zara?

— Bai. Akerrarekin bizi naiz.

— Beti akerrarekin?

— Bai, bai. Hau zintzoa da, ba.

— Eta usaina? —galdetzen du bisitariak.

— Gaixoa ez da sekula kexatu —erantzuten du atso zaharrak.

## **KONTRABANDISTEN LANAK**

Mixel Zuburu kontrabandista ezaguna zen. Badoa Izpegiko muga aldera. Autoan doa. Baina goardak daude eta ezin du zerbait jaitsi. Gora iristen da eta goarda

batek galdetzen dio:

— Ba al duzu zerbait deklaratzeko?

— Ez, ez.

— Ireki maletgia.

Maletgian Battitta Bortairukoa agertzen da. Maletgian gorderik dago. Hau mendiko kontrabandista zen.

## **BERA-NAFARROA**

### **PEPITA ETA FANI**

Pepita eta Fani neskazaharrak ziren. Pepita Santa Kruz apaizaren konfidentea da. Fani konfitero liberal baten alaba. Biak elkarren etsai handiak dira.

Pio Barojak elaberri batetan ateratzen ditu. Fanik jakiten du eta gehiago ez dio hitzik egiten Barojaren familiari.

Faniren aita konfiteroak egunkari bat idazten du. Berako gauzak kontatzen ditu. Fanik aitaren egunkaria erretzen du.

Zergatik? Gehiago elaberrian ez agertzeko.

### **JOSE JULIAN BIZARGINA**

Gizon honek zinismoa leuna du. Moral librea maite du. Alaba bat Pepita da eta esaten du:

— Gure Pepita «oso pilaturik» (amontonada) dabil, baina ezkonduko da.

Jose Julianen abildade nagusia jatea da. Berako bandan tronboia jotzen du. Jose Julianek ederki bazkaldu du. Lagun batek bi oilasko sartzen dizkio tronboian. Tronboirik ez da entzuten, baina hark berdin jotzen du. Ez da ohartzen. Azkenean zuzendariak esaten du:

— Zer gertatu zaio tronboiari?

— Nik jo dut! —esaten du Jose Julianek.

Orduan agertzen dira oilasko erreak tronboian.

## SUGARRET

Sugarret mistikoa da. Otoitzak egiten eta Ama Birjinak jartzen ari da. Baina mozkorra da. Mutil zalea ere bai. Atzelaria omen da.

Behin mozkor handi bat ematen diote. Orduan biluzik jartzen dute. Sei edo zazpi baratxuri sorta jartzen diote. Baratxuriak bizkarretik zintzilik eta biluzik. Hala dabil Sugarret Beran. Gero beste sei urtetan ez da herrira azaltzen.

## IBIRIKU

Ibiriku eskalea da. Ibirikutik etorri da, Lizarra ondotik. Erretore gogorra eta zorrotza dago Beran. Hau Altsatsukoa da, Burunda eskualdekoa.

Ibirikuk esaten du:

— Burundatik erretorea ekarri duzue? Hobe mando  
bat Andiatik ekarri.

Andia mendikatea Ibirikutik hurbil dago.

## **BERRIATUA - BIZKAIA**

### **KATUAK LAPIKOA BURUAN**

Manuel Arraiaren etxean gaude. Lapikoa egosi da eta bazterrean dago. Katuak burua sartzen du lapikoan. Baina gero ezin du atera. Lapiko hotsa entzuten da sukaldean. Etxekoak badatoz eta katuak ihes egiten du. Lapiko eta guzti ihes egiten du. Han dabil katua teilatuan eta lapikoa buruan.

### **METROREN EZKONTZA**

Gizon bat txikia da eta Metro esaten diote. Askartzan neska eder bat dago. Amerikano bat etortzen da eta neska hura nahi du. Baina ez da ausartzen eta Metrori esaten dio:

— Aizu, egingo al duzu mesede bat? Askartzako nes-kari mandatua egin niretzat.

Metrok baietz esaten du. Baina gero pentsatzen du:  
— Neskari ederrena amerikano batentzat? Neuretzat  
inoiz mandaturik egin ez eta inorentzat egin? Badaezpa-  
da ere, lehenbizi neuretzat egin behar diot.

Hurrengo igandean, mezatik irten eta Metrok neskari:  
— Ezkontzerik pentsatzen baduzu... Badakizu. Ni  
pozik.

Neskak esaten dio:

— Pentsatuko dut eta erantzungo dizut.

Biharamonean neskak baietz esaten du eta laster ez-  
kontzen dira. Agur amerikanoa.

## ERROMERIA

Metrok kitarra jotzen ere badaki. «Treintaitres» ba-  
karrrik jotzen du, baina nahikoa da.

Behin euria da eta laban egiten du. Kitarra lurrean sar-  
tzen da eta bera gainera erortzen da. Orduan esaten du:

— Alabado sea el Santísimo, eta Maria Santísima, me-  
kaguen la uu! Kitarra ipurditik sartu eta hesteak dantzan,  
erromeria daukagu odolkien plazan.



## KONFESORE ERDALDUNA

Joan Txikia konfesatzera doa. Konfesore erdalduna da. Joan Txikia erdaraz ere pixka bat defenditzen da. Baina fraile erdaldunak ez dio absuluziòrik ematen. Orduan Joan Txikiak habitutik heldu eta esaten dio:

— Da asolusiòn o no da asolusiòn? Si no, haremos prosesiòn, ni barruan eta zu kanpoan!

Fraileak laster ematen dio absuluzioa.

## ORBELEN AUZIA

Etxe batetan orbela gurdira kargatzen ari dira. Auzoko gizona etortzen da. Hura bekaiztia (enbidioso) eta ziztrina da. Pentsatzen du:

— Nire orbek haizeak horien partera eraman ditu.

Eta esaten du:

— Orbel guzti horiek zuenak al dira?

Beste etxeakoak erantzuten dio:

— Horra, bada! Hortxe daude denak. Apartatu zu-reak eta eraman.

## DIMA - BIZKAIA

### KOMENTUTIK MENDIRA

Bi anai fraile karreran dabilta. Komentuan asperten hasten dira eta batak esaten du:

— Hainbeste urte hemen? Kanpora joan behar dugu. Besteak esaten du:

— Ez. Lehenbizi ikasi. Gero joango gara kanpora. Karrera amaitzen dute. Batek esaten du:

— Orain nora joango gara? Gorbeara, Anbotora ala Mugarrara?

— Goazen Mugarrara —erantzuten du besteak.

Fraile berriak Diman gora doaz Mugarrara. Mendian artzain bat aurkitzen dute. Artzaina bordako atean dago. Behien adar puntak zorrozten ari da. Fraileak han ikusita, artzaina harritzen da. Artzainak esaten du:

— Egunon, ene jaunak!

Fraileek erantzuten dute:

— Zuretzat ere berdin. Bide hau nora doa?

— Inora ere ez. Hau hementxe dago beti —erantzuten du artzainak.

- Zuk ez daukazu lotsarik —esaten dute fraileek.
- Ez. Kamainan utzi dut.
- Zertarako dira horiek?
- Igandean Areatzatik arranak (zintzarriak) ekarri ditut eta haientzat mihiak prestatzen ari naiz.

Fraileek:

- Arran onak mihi gabe ere joko du.

Artzainak:

- Jaunak, arranak eta gizonak mihi gabe ez dute balio.

Fraileek:

- Egia da hori.

Artzainak:

- Baita arrazoia ere.

Fraileek:

- Egia eta arrazoia ez al dira berdinak?

Artzainak:

- Ez. Oso desberdinak dira.

Fraileek:

- Nola, ba?

Artzaina lan eta lan ari da. Ez du bururik jasotzen. Adar punta bat zorroztu du eta esaten du:

- Jauna! Hau tripatik sartzen badiot, egia al da?

Fraileek:

- Bai, noski.

Artzainak:

- Eta arrazoia?

Fraileek:

- Arrazoia ez. Arrazoia daukazu.

Bi fraileek elkarri esaten diote:

- Honek asko daki. Goazen hemendik.

Fraileak Mugarran aurrera doaz eta bidean beste agu-

retxo bat aurkitzen dute. Hau ere harritzen da, fraileak mendian ikusita.

Egunon eta abar esan eta fraileek galdetzen dute:

— Aizu, gizona! Gauza bat. Errotari batek zenbat denbora behar du zero altutik lurrera?

Agureak esaten du:

— Errotariak ez dakit. Baina fraile buru bat eguerdiko hamaiketan zerutik bota eta hamabietan parrokoaren etxean egongo da.

Bazkal ordua esan nahi du artzainak. Fraile berriek elkarri esaten diote:

— Kanpoan gu baino jende argiagoa dago. Goazen komentura.

Eta fraileak ez ziren gehiago komentutik irten.

## HAU DA ZAPOA

Zeanuriko baserritar bat lanean ari da. Soroan lanean ari dira. Artoa jorratzen du. Agure handia da eta ortosik dabil. Ez dauka oinetakorik. Bere haitzurrarekin lanean ari da. Oinak lur bigunean sartzen dira. Lurrean, bere behatz handiaren punta ikusten du. Eta esaten du:

— Demoneroa! (Demonioa) Hau duk zapoa!

Haitzurkada bat eman eta zapoa kanpora dator. Zer izan da? Bere hankako behatz nagusia.

## ERROTARIA ETA EMAZTEA

Dimako errotari bat berandu doa etxera. Gauean oso berandu doa eta etxeko atea itxita dago. Errotariak atea jotzen du eta emazteak ez du erantzuten. Errotaria jo eta jo ari da. Halako batean, emazteak ohetik erantzuten du:

— Gurean ez da inor falta.

— Zure senarra naiz —esaten du errotariak.

Emazteak:

— Ez! Hemen ez da inor falta.

Errotariak orduan esaten du:

— Neure burua antaparara botako dut.

Emazteak ez du kasurik egiten. Errotariak enbor handi bat hartu eta blast! botatzen du antaparara. Emaztea orduan ohetik jeiki eta korrika doa. Antaparan senarrari deika hasten da eta enborra ur gainean ikusten du. Bien bitartean, errotaria etxera sartu da eta atea itxi du. Emazteak atea jotzen du.

— Ireki! —esaten du.

Errotariak barrutik erantzuten du:

— Gurean (gure etxean) ez da inor falta.

Emaztea atea jotzen ari da, baina alferrik.

Errotariak esaten du:

— Lehen neu egon naiz kanpoan. Orain zuri tokatzen zaizu.

Emazte gaixoak kanpoan pasatu zuen gaua. Teilapean lo egin behar izan zuen.

## AILORBE ZAKUA BIZKARREAN

Zeanuritar bat Bilbora joan zen. Orduan tranbia dago. Arratiako tranbia famatua. Gizonak Bilbon ailorbe hazia erosten du. Anega erdi erosten du. Hazi arina da eta bulto handia egiten du. Tranbiara doa. Ez du zakua-renik ordaindu nahi. Zer egiten du? Zakua bizkarrean ekartzen du. Horrelaxe dator tranbian Bilbotik Zeanurira. Hiru ordu.

## ELGETA - GIPUZKOA

### GOSEA ETA MAHATSA

Elgetar batzuk Arratera joan ziren. Oinez joan ziren. Handik Eibarrera jaisten dira. Eibartik Ermura doaz. Ermutik Elorriora doaz. Han dantzan egiten dute eta Zabaletara doaz. Gazetan gora gose handia sentitzen dute. Gazeta Elorrioko auzune bat da. Dena oinez egiten dute eta hura gosea. Gaua da. Mahasti bat dago han. Txakolin mahatsa dago. Sartzen dira eta hosto eta guzti jaten dute. Nahikoa jaten dute eta gizon bat irteten da. Hura ere lapurretan ari da. Elgetarrak ihes egiten dute. Ugazaba dela pentsatzen dute. Bat bakarrik geratzen da mahats gainean. Gero Jose egur handi batekin dator. Lagunak mahats gaisetrik galdetzen dio:

— Zer, Jose, nora hoa (zoaz)?

Jose bildurtzen da eta ihes egiten du. Gero laguna ezagutzen du eta esaten dio:

— Zu ugazaba izan eta nik jo! (ugazaba izan bahintz, joko hindudan).

— Bai. Toki ederrera joan haiz (zara).

## ESKALEA ETA HIRU GAUZA

Eskale handi bat ibiltzen zen Elgetan. Oraindik sasoi ona dauka. Baina eskean ibiltzen da. Ez du lanik egiten.

— Ez al zara lotsatzen? —galdetzen dio emakume batek.

— Hara, emakumea. Ez al dakizu? Hiru gauza ari dira beti galtzen.

— Zeintzuk dira gauza horiek?

Eskale handiak erantzuten du:

— Urrutiko egurra, nagiairen indarra eta pobrearen arrazoia.

## IJITOAK ETXEAN

Elurtza handia dago. Ijitoek baserri batean aterpea eskatzen dute. Teilapea (tejabana) uzten diete. Lau senar-emazte dira eta bi gazteak dira. Haiek bai jolasak teilapean! Etxeko gizonak esaten du:

— Hauek ez dabilta gure apaizaren legean.

— Raposo! Raposo! —esaten dute ijitoek eta esko-peta eskatzen diote nagusiari. Baina nagusiak ez die ematen. Hiru egun egin eta joaten dira. Hamabost egun orduko, astoa ostutzen dute. Etxeko gizonak esaten du:

— Eman horiei ostatua. Hurrengoan behiak eramango dituzte.



## ELGETAKO ERREPIDEA

Elgetatik Eibarrera errepeidea dago. Gerra aurretik egin zen. Orduan Elgeta, Angiozar era Ubera udaletxe bakarra dira. Elgetak bide hura egin nahi du. Baina Angiozarrek eta Uberak gehiengoa daukate udaletxean. Haiiek beti ezetz esaten dute eta ezin dute biderik egin. Elgetatik udaletxean errepublikanoak, nazionalistak eta karlistak daude. Denek bidea egin nahi dute eta horretarako denak batzen dira. Hauekin beste elgetar batzuk ere batzen dira eta batzorde bat bezala egiten dute. «Plana maiorra» esaten diete. Don Bitorio medikuak ere asko laguntzen du.

Azkenean, noizbait, bidea egiten hasten dira. Orduan Elgetan ere eztabaida sortzen da. Nondik egin? Goitik ala behetik? Azkenean goitik erabakitzen da. Kontzejal batek behetik nahi du. Bera beheko aldean bizi da. Baina goitik egiten da eta kontzejal hura ez da gehiago udaletxera etortzen.

Gero Zumarragako batzar historikoa gertatu zen. Udaletxeek dimititu egiten dute eta Elgetakoek ere bai. Baina kontzejal hau ez da joaten eta ez du dimititzen. Eta gero bera izendatzen dute alkate.

Elgetan urekin ere arazo berdina eduki zuten. Angiozarrek eta Uberak ez dute nahi. Gastu handia omen da eta ezin dute gastu horretan sartu. Gero Angiozar eta Ubera Bergarara pasatzen dira eta Elgeta bakarrik geratzen da. Orduantxe bakea.

## SITA BIDAGINA

«Sita» Eibarkoa. Behin lau emakume elgetar Eibar-tik datoz. Sitak emakume bakoitzari duro bana kentzen dio. Beraz, lau duro. Orduan diru asko. Sitak aurpegia estaltzen du. Maskaraturik dago. Baina emakume batek jakea ezagutzen du eta handik harrapatzen dute. Gero Elgetako errepidean hasten da. Txabola batean bizi da. Bakarrik bizi da. Zer jaten du? Satorrei larrua kendu, ba-bekin egosi eta huraxe jaten du.

— Zer moduz sator okela? —galdetzen diote.

Eta Sitak erantzuten du:

— Oso ona. Harrapatzen zaila.

Errepidea egiten da eta Sitak Elgetako sator guztiak jaten ditu.

## JULIAN TXARAKA

Gerran Elgetako kanposantuko orma apurtzen da. Julian Txaraka orma hura konpontzen ari da. Norbaitek galdetzen dio:

— Zertan ari zara, Julian?

Eta hark erantzun:

— Alferreko lanean ari naiz. Inork ez du nahi barru-ra joan eta inor ez da hortik irtengo. Alfer-alferrik.

# ELORRIO - BIZKAIA

## JOSE GORRI

Jose Gorri ehorzlea zen. Behin katua harrapatzen du. Baina berak esaten du: «Untxi ederra daukat. Hura jan behar dugu». Lagunak batzen dira eta untxia jaten dute. Ederki jaten dute eta esaten dute: «Ederra dago». Orduan Jose Gorri miauka hasten da.

— Miau! Miau! Miau!

Lagunak ohartzen dira eta batzuk hesteak botatzen dituzte.

Jose Gorri prozesioan dabil. Gurutze batekin eskean ari da. Elizarako dirua batzen du. Esaten du:

— Kristoren argitarako.

— Kristok nahiko argi dauka —esaten du gizon batek. Eta Jose Gorrik:

— Ez. Bota! Bota! Geuretzat da.

## FELIX HERRENA

Felix herrena famatua zen. Herrena, baina oso alai zen. Bai eta ausarta ere. Zezenen aurrean ibiltzen zen. Gauza politak egiten ditu eta jendeak barre egiten du. Zezena etorri eta bera geldi. Ez da bildurtzen. Zezenak behera botatzen du, baina ez du minik hartzen. Upel baten barruan sartu eta zezenaren aurrean bueltaka ibiltzen zen. Pelotan ere oso trebea zen. Pisuak gerrian lotu eta pelotan egiten du. Zergatik? Kontrarioa gutxiago delako. Horrela berdintzen du aldea. Beste hau ere egiten dute orduan: hiru lagun elkarri lotu eta beste bi solteren aurka. Felix herrena ihauterietan hartz jazten da. Horrela komediak egiten ditu. Haurrek hura ikusi nahi dute. Felixek hanka herrenari «hanka sanoa» esaten dio. Eta bestea? «Sanoagoa».

## BUZKANTZ KALEA

Zer da buzkantza? Bizkaiko hitza da. Buzkantza odolkia da. Bizkaian odolkia «odolostea» da eta «buzkantza» ere bai. Elorrion kale batek izen hauxe dauka: «Buzkantz kalea». Esaera da:

— Buzkantza, zazpi libra eta bost ontza.

Ez da, beraz, txikia. Elorrioko kale batean buzkantz

ederrak egiten ziren. Behin buzkantz bat lehertu omen zen. Herri guztian usaina zabaltzen da. Horregatik gero kale hari izen hori ipintzen diote.

## **ATXURRAREN PREGOIA**

Atxurrak pregoia jotzen du. Oso ondo jotzen du. Bilbora ere azaldu zen. Emakume bati mantala galdu zaio. Pregoia jo behar du. Baina izena ahaztu eta esaten du: «Hori... emakumeek aurrean erabiltzen dutena». Garai haiek!

# EREÑO - BIZKAIA

## PANDERO KONDENATUA

Txistuak eta danbolinak askatua jotzen dute. Aurrekua eta dantza soltea. Gero akordeoia eta panderoa hasten dira. Hauek dantza lotua ere jotzen dute. Baina dantza lotua bekatua zen. Horregatik akordeoiari apaizek eta fraileek «ifernuko auspoa» esaten diote. Panderoa ere pertsegitzen dute. Euskal Herri guztian gertatzen zen hori. Hauek ez dira hain kontu zaharrak. Gerra ondoren gertatu dira.

Ereñon mutil batek panderoa jotzen du. Pandero jotzailea da. Egun batean konfesatzera doa. Apaizak esaten dio:

— Zuk panderoa jotzen duzu.

— Bai jauna —esaten du mutilak.

Apaizak: — Panderoa jo? Kondenaturik zaude. Panderoa utzi behar duzu. Bestela ez dizut absoluziorik emango.

Mutilak: — Baina ez da nirea, jauna. Anaiarena da.

Apaizak: — Ba, esan orduan anaiari etortzeko. Eta amari ere bai.

Mutilak etxean anaiari esaten dio. Anaia ez da joaten. Baina ama bai joaten da.

Apaizak esaten dio: — Semeari panderoa kendu behar diozu.

Amak: — Baina, jauna, nola kenduko diot, ba? Berrria erosiko du.

Apaizak gogor egiten dio. Emakumea negarrez doa etxera. Baina ez dio semeari panderorik kentzen.

Ereñoko neska bat neskame doa etxe batera. Etxe hartako neskek panderoa jotzen dute. Pandero jotzaileak dira. Neskamea pozik doa etxe hartara. Baina etxe hura kondenatua zen apaizarentzat. Apaizak jakiten du eta neskamearen amari esaten dio:

— Eskomikatu (eskomulgatu) egingo zaitut. Nola bidali duzu alaba etxe hortara?

Ama bildurtzen da eta berriro ekartzen du alaba etxera. Nolako denborak!

## NESKA AUSARTA

Neska bat panderoa jotzen ari da erromerian. Ereñoko eliza eta plaza elkarren ondoan daude. Neska elizpeko ate txikian dago. Handik jotzen du panderoa. Apaiza badator eta panderoa makilaz jotzen du. Panderoa eskueetatik erortzen zaio eta txirrin-txirrin plazara doa. Neskak atzetik jarraitzen dio, panderoa hartzen du eta handik apaizari esaten dio:

— Orain, hementxe joko dut, ba!

Apaizak ezin dio plazan agindu. Baina gero elizan gaizki erabiltzen du neska.

Beste behin Ereñoko neskak Natxituko erromeriara doaz. Baratze batean loreak hartu eta paparrean ipintzen dituzte. Apaizaren neskameak ikusi eta apaizari kontatzen dio. Apaizak ama bati deitu eta esaten dio:

— Ba al dakizu nola joan zen zure alaba? Ifernua paparrean, mutilak kondenatzeko. Amek daukazue errua. Honelakoxe mundua zen hura.

## SAN MIGEL ITZAIN

Ereñoko mendi batek San Migel dauka izena. Mendi zorrotza eta altua da. Mendiaren oinetan, Arteaga aldetik, Santi Mamiñeko kobak daude. San Migelgo gailurrean, antxina, San Migelen eliza omen zegoen. Garai haietan denak San Migelgo mezara etortzen dira. Igan-deetan ereñar guztiak mendi gailurrera. Bedaruko Lasturkoa ere hara etortzen da. Oso urrundik dator gizona. Lasturko gizona han behean agertzen da eta esaten dute:

— Badator.

Apaiza orduan jazten hasten da eta jendea elizan sartzten da.

Gero eliza behean egitea pentsatzen dute. Herria bazartzten da eta non eta nola erabakitzen dute. Lanean hasten dira eta egunez gaiak edo materialeak ekartzen dituzte. Biharamon goizean materiale haiek mendi pun-



tan daude. Norbaitek gaez gora jasotzen ditu. Horrela egun bat eta beste bat eta beste asko.

Berriro herria batzartzen da eta jagotea pentsatzen dute San Migel mendiaren oinean Gaztelu baserria dago. Gazteluko atsoak esaten du:

— Neuk jagongo dut. Hemendik pasatu behar dute.

Gazteluko atsoa gaez ate zulotik begira dago. Begi bat giltzaren zuloan ipini eta jagoten du. Gau erdian San Migel idiekin ikusten du. San Migel itzain doa eta esaten du:

— Aida, Txuri eta Beilegi, ate zuloan dagon atsoari, atara begio begi.

Atsoari begia atera esan nahi du. Biharamon goizean Gazteluko atsoa begibakar agertzen da. Orduan Ereño-ko herriak amore ematen du. Berriro han goian, San Migelgo gailurrean, ermita bat egiten dute. Huraxe da gaurko ermita.

## IPURDIA

Arteagako etxajaun bat behin asuntzan ikusten dute. Asuina oso mina da. Gizonak zaku bat dauka burutik.

— Uh, uh! —entzuten dute mutikoeak.

Begiratzen dute eta gizona asuntzan. Makurtzen da eta berriro zutitu, makurtu eta zutitu. Bere lan isila egiten ari da. Baina gaizki. Inork ez ikusteagatik, azkenean denek ikusten dute. Eta ipurdia erre eta gorri-gorri.

## IPURDIKOA

Etxeko komuna ere halakoa daukate. Kakoan atzea jarri eta hala. Behin kakoa apurtzen zaio eta atzez behera erortzen da kakatzara. Alabak ezin du atera. Mutila etortzen da eta bien artean ateratzen dute. Agure gaixoa baldeatzen egun erdi gero. Orduko komunak eta dutxak!

# EZKIO - GIPUZKOA

## NOR PRESO?

Jose Etxeberria famatua zen Ezkion. Behin, San Andresetan, Ormaiztegira joan zen. Festak dira eta poliki berotzen da. Gero bertsoan hasten da eta eskandalua armatzen du. Gaizki hitzegiten nahiko ona omen zen. Agoazila etortzen da eta esaten dio:

— Neurekin etorri behar duzu.

Etxeberrik: — Nora?

Agoazilak: — Gaua pasatzera.

Etxeberrik: — Bertan ere gaua ederki pasatzen dut nik.

Agoazilak: — Esan dizut, gizona, eta ez berriz esan erazi.

Agoazilak heldu eta barrura eramaten du. Etxeberrik «perrera» ikusten du eta esaten du:

— Behar baldin bada, sartuko naiz. Baina hau ez dago kondiziotan.

Agoazila barrura sartzen da. Kalabozoa ikustera sartzen da. Orduan Etxeberrik zer egiten du? Agoazila barruan utzi eta bera tabernara berriro. Eta ez tabernara bakarrik. Etxera ere lasai etorri zen. Ormaiztegiko agoazilak gau guztia preso egin zuen.

## SOLDADU ERNEA

Jose Etxeberri soldadu egon zen Afrikan. Ez dago hain gaizki. Komandantearen laguntzaile dago. Lan asko ez du egiten. Baina komandantearen neskamea ederki tratatzen du. Eta azkenean bere lana egiten du komandantearen neskamearekin. Lan hori ezkutuan egiten da. Baina gero denen bistara agertzen da. Komandanteak neskamea bidali egiten du. Eta soldadua? Nola edo hala hark bertan jarraitzen du. Baita dirua poliki atera ere. Despen-tsako gauzak eta jatekoak (garbantzua eta abar) saltzen ditu. Eta gainera komandanteari laurogei duro prestatu. Horrela dator mutila etxera. Gero herrian Benantxiori esaten dio:

— Eskutitz bat egingo al duzu?

— Nori eta noren partez?

— Komandanteari neure partez. Laurogei duro zor dizkit.

Benantxiok eskutitz hura idazten du eta erantzuna dator:

— Lau hiletan ordaintzeko, hil bakoitzean hogeituro.

Etxeberrik Benantxiori esaten dio:

— Ederki. Paguak zuk jaso eta azken hogeituroak zuretzat.

Benantxiok hiru hilak normal jasotzen dizkio. Baina Etxeberrik laugarren hilean zer egiten du? Aurretik joan eta berak kobratu. Hori da soldadua hori!

## ASPIRINAK ARDOTAN

Etxeberri gaixo jarri zen. Gizona ez dago ondo. Orduan medikuak aspirinak agintzen ditu. Etxeberrik ez du aspirinarik nahi. Inola ere ez. Norbaitek esaten dio:

— Bai gizona! Ardotan ederki edango duzu.

Orduan bai Etxeberrik aspirinak gustora hartu!

# GABIRIA - GIPUZKOA

## SERAPIN ETA TXINTXURRETA

Serapin tabernan dago. Zer moduz? —galdetzen diote. Serapinek erantzuten du:

— Ondo esan behar. Ohea ere hozten dugu.

— Ohea hoztu? «Ohea berotu» izango da.

— Hoztu esan dut. Gaixoak ez du oherik hozten —bukutzen du Serapinek.

\* \* \*

Telebista ikusten ari dira tabernan. Gizon bat ikusten dute pantailan. Ile zuri-zuria eta bizar beltza dauka. Bai gauza arraroa! —esaten du mutil batek. Orduan Serapinek esaten du:

— Hori normala da. Bizarrak hamazazpi urte gutxiago ditu.

— Beste mundutik ez dator kartarik —esaten du gabiriar batek tabernan. Esaera hau Euskal Herrian asko esaten da. Orduan Txintxurretak esaten du:

— Oraindik ez da berandu. Bidean ehun taberna daude eta bakoitzean ehun urte egin behar dira. Beraz, oraindik ez da denborarik.

— Arraioa! —esaten du Serapinek. Orduan oraindik egun onak pasatu behar ditugu.

Artagoitiko anai-arrebak gurdiarekin doaz. Neskazaharra eta mutilzaharra dira. Baina gurdia iraultzen da. Euritakogile bat pasatzen da. Mutila aurrean jartzen da eta neskazaharra eta parageroa gurdiaren atzean.

— Agarra, agarra —esaten du erdaldunak.

— Ona dago hau —esaten du neskazaharrak—. Adarra-adarra esaten du.

\* \* \*

Gerra denbora da. Gabiriar bat Otxandion ibili da gerran. Batzu hil eta besteak Teruelera doaz. Gabiriarra etxera dator. Gorrien aldetik ibili da. Apeza aurkitzen du eta hau frankozalea da.

— Zer moduz beste munduan? —galdetzen du apezak. Apezak «gorrien mundua» esan nahi du.

— Begira —esaten du gabiriarrak—. Zerura joan naiz eta hura triste dago. Linboa eta purgatorioa ere triste daude. Ez al da beste departamenturik? —galdetu dut. Bai, ifernua. Hau bai gauza alai. Jende asko dago. Aulki bat erdian ikusten dut. Eseri nahi dut eta esaten dute: Oi! Hori ez. Aulki hori Gabiriko apezarentzat da.

# GOIZUETA - NAFARROA

## OILOEN MIRAKULUA

Goizuetan jaun bat zen. Herriko nagusia zen. Morroi asko dauzka jaun horrek. Hogei edo hogeita hamar mutilek oiloak ostutzen dituzte etxe hartan. Oiloak ostu eta jan. Orduan oilategia itxi egiten dute. Etxe hartan mandoak, zaldiak eta abar ere badaude. Etxekoandreak Martina dauka izena. Honek oiloak bazkatzen ditu. Oiloei jana ematen die. Oilategia itxi dute. Baina mutil batzuk goian, gainean lo egiten dute. Orduan esaten dute:

— Ederra egin digute. Ostu behar dugu, ba!

Ohol bat ganbaran kendu eta azpian oiloak daude. Mutilek soka batekin garranga bat (amu bat) botatzen dute. Garranga hark zizarea dauka puntan. Oilo batek pikatzen du eta gora. Martina han gertatzen da. Martina oso elizkoia da eta hots egiten du:

— Milagro!

Martinak ez du gehiago oilorik bazkatuko.



## KAKA ETA XABOIA

Bi mutil kamioizaleak dira. Biek enpresa berean lan egiten dute. Urrun ibiltzen dira. Batek arropa zikinak andregaiari bidaltzen dizkio. Garbitzeko. Baina besteak zer egiten dio? Buzora kaka egin, bildu eta autobusean bidali. Andregaiaren etxera heltzen da eta amak irekitzen du paketea. Hura nahastea gero. Mutilak atsekabe handia hartzen du. Baina berak ere ordaina prestatzen du. Behin dutxatzen ari dira. Elkarren ondoan daude, dutxa publikuan. Dutzak goitik libre daude. Biek xaboi bakarra daukate. Kaka egin zuenak esaten du:

— Hi, eman xaboia.

— Bai! —eta kaka egin eta hura ematen dio gainetik. Besteak aurpegian ematen du. Hura xaboi gozoa!

## KONFESIO GOZOA

Goizuetako mutilzahar bat Oiartzuna doa. Han konfesatzen da. Herriko apaizarekin ez du nahi. Bekatu batzuk aitortzen ditu eta apaizak galdetzen dio:

— Seigarrenean?

— Ez. Ezer ere ez hor.

— Gauza gozoak gustatuko zaizkizu, ba.

— Bai, arrosesnea asko gustatzen zait, jauna.

## LAPURRARI LAPURTU

Goizuetako lagun talde batek oilo bat jan nahi du. Lagun horiek mutiko bati esaten diote:

— Oilo bat behar dugu. Ekarriko al duzu? Bost hogerleko.

Mutikoak erantzuten du:

— Hamar hogerleko.

Mutilak esaten dio:

— Hamar asko da.

— Nik hamar behar ditut.

— Beno. Hamar. Baina oilo ona ekarri, gero!

Mutikoak hamabi urte ditu eta bihurria da. Tratua egiten du eta arratsaldean oiloa ekartzen du. Lagun taldeak oiloa jaten du. Gauean amak mutil bati esaten dio:

— Oilorik onena falta da etxean.

Mutila harritzen da. Zer gertatu da? Mutikoak hamar hogerleko hartu eta agintzaileari berari lapurtzen dio oiloa.

## HOSTIA PALIER

Aranoko Almandoz garraiolaria zen. Irurtzun inguruan, kamioiaren palierra hausten da. Almandozek Hernaniko Zumeta mekanikoari deitu nahi dio. Telefono etxera doa, markatzen du eta hizketan hasten da:

— Aizak, hi, Zumeta!

Orduan telefono etxean esaten diote:

— *Hable Usted en castellano o le cortamos.*

Almandozekek erdaraz egin behar du. Nola esan palier-  
rra hautsi zaiola?. Pixka bat pentsatzen du eta esaten du:

— Zumeta! Hostia palier! Hostia palier!

## SORGINAK BAI ALA EZ

Sorginik badago ala ez dago? Huitzik esaten du:

— Sorginik ez dago. Nik ez dut sorginetan sinesten.

Huitziren bi lagunek elkar hartzen dute eta plana egi-  
ten dute. Batek maindire zuri bat hartzen du eta estaltzen  
da. Gaua da eta Huitziri bidera irteten zaio. Huitzik esa-  
ten du:

— Zer behar duzu?

Sorginak esaten du:

— Arima bat naiz. Meza bat behar dut.

Huitzik galdetzen du:

— Dirurik ekarri al duzu?

— Ez! —erantzuten du sorginak.

Orduan Huitzik esaten du:

— Ba, gure apaizak ez du dirurik gabe mezarik ematen.

## ZAKUR HAUNDIA ATZETIK

Goizuetatik Hernanira hogeita bost kilometro daude. Autobus bat dabil linean. Duela urte asko gertatu zen hau.

Aranoko bidagurutzean, autobusaren geralekua dago. Han gizon batek koadroak eskaintzen ditu. Saltzaile ibiltaria da. Koadro bat San Roke da. Goizuetar batek txakur txiki bat darama. San Rokeren koadroa ez zaio gustatzen eta txakurraren muturra hurbiltzen du koadrora. Txakur txikiak koadroari musu ematen dio.

Gero txakur txikiaren jabea txakur handi bat agertzen zaio. Egunero eta nonahi agertzen zaio gauez. Zakur handiak ez dio ezer egiten. Baina atzetik agertzen zaio gauez. Gizona bildurtzen da eta apaizarengana doa. Apaizak esaten du:

— Arimaren bat izango da.

Gizona mezak ematen hasten da eta zakurra desagertzen da.

## HELETA - NAFARROA BEHEREA

### HANDI BAT EDO BI TXIKI

Heraitzen gaude. Heletatik Hasparnera goaz. Han edantoki bat dago. Kaserna du izena. Horko nagusi zaharra handia zen. Oso handia zen. Bi metro gora eta ehun eta hogeiki kilo. Ziprien du izena. Ziprien hil zen, baina andrea bizi da. Honek Mari du izena eta oso txikia eta arina da. Behin norbaitek esaten dio:

— Aizu, Mari. Zu hain emakume txikia izan eta nola hartu duzu hain gizon handia?

— Bai! —erantzuten du Marik—. Gaztea nintzen eta pentsatu nuen: ni ezkontzeko, gizon handi bat behar dut edo bi txiki.

## BEGIBAKARRAK IKUSI

Zuharitzen, Bordagaraiko Piarres oraintsu hil da. Konkorra zen. Baina abila. Deabru txiki bat bezain abila. Behin Batitarekin biltzen da. Usoen solasa ateratzen dute. Batita begibakarra da eta esaten du:

— Aurten uso asko doa. Segurki erdiak ikusi ditut pasatzen.

— Erdiak zuk ikusi? —esaten du Piarresek—. Orduan denak pasatu dira.

## MOZKORRA ETA EROA

Heletako auzategi batek Garreta du izena. Hemen zirtolari onak dira. Arrazoi onak ematen dakite. Behin garretar bat mozkortzen da. Norbaitek esaten dio:

— To! Ai zer mozkorra duzun gaur!

— Bai, baina nire mozkorra bihar joana da eta zure «zozoa» ez da sekula joango.

(Zozoa: eroa edo erotasuna, zozo burua duena).

# IHOLDI - NAFARROA BEHEREA

## ZU BEZALAKORIK

Iholdiko Mixelek kotxeak konpontzen ditu. Kotxe konpontzailea da. Behin herriko apaizak lan bat eskatzen dio. Denbora asko pasatzen da eta Mixelek ez du lan hura egiten. Igande goiz batean, Mixel meza santura doa. Apaizak Mixeli esaten dio:

— Baina Mixel! Noiz etorriko zara lan hura egitera? Ez dago gero beste bat zu bezalakorik!

Mixelek irri maltzur bat egiten du eta esaten du:

— Oraino bat behintzat badago.

## FABIANDEGIKO HAURRA

Iholdiko etxe batek Fabiandegi dauka izena. Etxe hartan haur bat jaio zen, oso txikia. Jaiotzan, haur guztiak txikiak dira. Baina hura besteak baino txikiagoa zen. Medikiak esaten du:

— Haur hau oso txikia jaio da.

Lusek orduan erantzuten du:

— Berdin da, jaun medikua. Etxean bertan haziko dugu.

## BELAR IDORRA

Iholdin Aranburu eta Xemeine baserriak dira. Bi baserri hauetan belarra ebakia dute. Biek egun berean ebaki dute belarra. Biharamonean Aranburuko nagusia gurdia-rekin dator. Belarra gurdian kargatzen du eta etxera doa. Xemeinekoa belarrari buelta ematen ari da.

Belarra ebakitzen da eta gero han uzten da. Horrela idortu egiten da. Belar idorra egiten da. Hortarako egun batzu behar dira. Eguzkia behar da. Noizik behin, belarrari buelta ematen zaio. Xemeinekoa horretan ari da eta Aranburu ikusten du. Aranburuk bezperako belarra kargatu eta gurdian darama. Xemeinek esaten dio:

— Idortu al da belar hori?

Aranburuk erantzuten du:

— Bai. Atzo baino idorrago duk (da).



## LAURO - BIZKAIA

### AGUR BIZIKLETA

Donato eta Lorentzo itzainak ziren. Idiekin Bilbora egurra eramaten dute. Bueltan, Enekurin behera datoz. Bizikleta bat ikusten dute eta Lorentzok esaten du:

— Kaben la koño! Hauek nola korritzen dute?

— Oraintxe ikusiko dugu —esaten du Donatok. Eta akuilua radio artean sartzen du. Gizona lurrera eta agur bizikleta.

### VILLABERDEKO DENBORA

Laurotar bat Trucíos-era doa trenez. Handik Villaberdera oinez joan behar du.

— Villaberdera zenbat denbora dago? —galdetu na-

hi du. Baina han ez dakite euskaraz eta erdaraz galdetzen du:

— Oye! Qué tiempo en Villaberde?

— Qué hostias sé yo? —erantzuten dio bestiak.

## FELIPEREN LANAK

Felipe zerbait asmatzen dago beti. Behin untxi larru bat hartzen du. Belar lehorrez betetzen du. Basoan, zoko batean ipintzen du. Benturo ehizan ibiltzen da. Han dabil eta esaten du:

— Ene! Erbi habia hor!

Biharamonean Benturo joaten da eta pun-pun. Zer jutzen du? Feliperen untxi larrua. Eta belar lehorrak airean doaz.

Beste behin Felipe eta lagun batzuk lanean ari dira. Zanga edo erreten bat ateratzen ari dira. Haitzurrekin ari dira. Felipek hogەرleko bat zulora botatzen du. Zilarrezko hogەرlekoa da. Eta esaten du:

— Hemen, gerratik edo, zilar kutxaren bat dago.

Lagun guztiak haitzurka hasten dira. Baina ez dute ezer topatzen.

Sasi mota batek bola gorritxoak edukitzen ditu. Horiek hazkura handia ematen dute. Behin Felipek bolatxo horiek zabaltzen ditu. Ai zer koadrua! Denak dantzan ipintzen ditu.

Jostuna etxetik etxe ibiltzen zen orduan. Feliperen etxean geratu zen bere zaldiarekin. Ilunabarrean, Felipek zaldiaren buztana zehe-zehe ebakitzen du. Gero ile zehatua jostunaren ohean botatzen du. Jostuna ohean sartzen da eta han dira komediak.

Andre batek txori jagolea edo txorimaloa ipintzen du soroan. Figura itxusi bat da hau. Zer egiten du? Txoriak bildurtu eta uxatu. Andreak esaten du:

— Ikusten duzu gure txori jagolea?

Felipe isilik dago. Baina pentsatzen du: «Zerbait falta zaio horri».

Biharamonean azenario luze eta gorri-gorria ipintzen dio.

# LAZKAO - GIPUZKOA

## NI-NI-NI

Lazkaoko kamionari bat bidaian doa. Totel batek esaten dio:

— Ni-ni-ni ere banoa.

Gero beste totel batek ere berdin. Bidean batek galdetzen du:

— Txi-txi-txiste bat ko-ko-kontatu nahi dut, ba-ba-baina ez dakit bu-bu-bukatuko dudan.

## FA-FA-FA

Beste behin totel hau eta lagun bat dantzara doaz. Bi neska daude han eta totelak esaten du:

— Ne-ne-neuk e-e-eskatuko diet.

Dantza eskatzeko, «faborez» esaten da Lazkaon. Totela badoa eta neskei esaten die:

— Fa-fa-fa...

Eta beste lagunak atzetik:

— Do-do-do.

## **KA-KA-KA**

Bi total sutegian lanean ari dira. Batak burdina gorria atera eta besteak mailuz jo. Batak esaten du:

— E-e-eman.

Besteak:

— No-non-nondik?

Lehengok esaten du:

— Ka-ka-kaka. Hoztu duk (da).

## **AZKENETAN**

Gizon bat ohean gaizki dago. Apaiza dakar eta oleazioa dakar. Oleazio edo olio ematea. Gizonak esaten du:

— Ai apaiz jauna! Gurdia engrasatu, bidaia seguru.

## **URRUNGO INURRIAK**

Apaizgai batzuk adarra jo nahi diote Manueli. Mendi bat seinalatu eta galdetzen diote:

— Manuel! Ikusten al dituzu inurri haiek?

Eta Manuelek:

— Ikusi ez, baina oin hotsa entzuten dut.

## MARIA HIL DA

Gizon batek telegrama bat hartzen du Tolosatik:

— Fallecido María, funeral a las cinco.

Gizonak familia guztiari esaten dio. Lanera joan eta Konstantinori esaten dio:

— Maria hil da.

Honek ere erreleboa aldatzen du. Arratsaldean badoaz. Tren bete jende doa Tolosara. Trenkada. Lau t'erdia dira eta hilaren etxetik inor ez dago. Konstantinok esaten du:

— Usain txarra hartzen dut. Bostak eta inor ere ez.

Orduan Mariaren etxera doaz. Atea jotzen dute eta Maria bera irtetzen da.

— Arratsaldea pasatzera?

Konstantinok:

— Bai. Beno, ez Leon alu horrek... telegrama...

Ez daki zer esan. Gero Lazkaon Leoni esaten dio:

— Hi, Leon! Zer egin duk? (duzu). Tren bete jende atzera eta aurrera. Telegrama hosti hori!

## KATUA ETA PERTZA

Genobebo Zaldibira doa. Zaldibiko mondeju fama-  
tuak jan nahi ditu.

— Gaur ez dago, ba —esaten du tabernandreak.

Une hartan katu bat sartzen da.

— Ipin horixe! —esaten du Genobebok.

Tabernandreak:

— Baina gero pertza ere usainduko da.

Genobebok:

— Berdin da. Zuk ipini horixe.

Genobebok katua jaten du. Gero pertza leihotik bo-  
ta, hura ere ordaindu eta etxera.

# OIARTZUN - GIPUZKOA

## OIARTZUARRA TRENEAN

Gerra ondoa zen. Oiartzuar bat trenera doa. Txartela hartu nahi du. Leihatilan galdetzen diote:

— Nora?

— Bai! —esaten du Oiartzuarrak—. Andreari ez diot esan eta zuri esango dizut.

Gero trenean poliziak salbakonduktua eskatzen dio. Gizonak ematen dio. Poliziak begiratzen du eta esaten du:

— Está caducado.

— Allá cuidaos! —erantzuten du gizonak—. Niri lagun batek utzi dit.

Oiartzuarrak nola edo hala joan-etorria egiten du. Bueltan herrian galdetzen diote:

— Zer moduz bidaia?

— Ederki, mutil! —erantzuten du oiartzuarrak—. Tertzera txartela hartu, segundan sartu eta primeran joan.



## ARDIAK ETA HAURRAK

Euskaldun bat Ameriketara joan zen. Gizon handi egin zen. Sei mila ardi dauzka. Morroi bat beltza dauka. Noiz-bait morroi hura ezkontzen da eta andre beltza hartzen du. Haur bat edukitzen dute. Nagusiak jakiten du eta arrantxora doa. Morroi beltzari esaten dio:

— Zorionak!

— Eskerrik asko! —erantzuten du morroiak. Baina hura triste dago.

— Zer gertatzen zaizu? —galdetzen dio nagusiak. Morroiak erantzuten du:

— Ni beltza. Andrea ere beltza. Eta haurra zuria. Nola da hori?

— Gizona! —esaten dio nagusiak—. Sei mila ardi dabilta hor. Tarteka beltzak jaiotzea ez da harrigarri.

— Beno —esaten dio morroiak—. Ni ez naiz gehiago zure ardiekin ibiliko. Baina zu ere ez nire andrearekin.

## BIZI ALA LAN

Familia handi samarra zen. Seme bat udaletxera joan zen.

— Zer behar duzu? —galdetzen diote han.

— Zentsuan sartu nahi dugu.

- Zenbat senide zarete?
- Zazpi gara. Baina gehiago ere izango gara.
- Hori gero ikusiko dugu. Zazpiak bizi al zarete?
- Ez, jauna. Beste seiek lan egiten dute.

## JOXE POTTOKO

Joxe Pottoko (Jose Etxebeste) oso gizon kuriooa zen. Iturgina edo linterneroa zen eta Arditurriko meategian lan egiten zuen. Oiartzungo etxe askotan lan egiten du. Sukaldeko iturri zaharrak konpontzen ditu. Joxe Pottokok beti zigarroa ahoan dauka. Oso gizon bromoso da eta gaur ere haren gauza asko kontatzen dira.

Behin, Oiartzungo kalean estolda zikintzen da. Zikindu edo ataskatu. Joxe Pottokori deitzen diote. Joxe Pottoko badator eta plazan sartzen da. Zuloan sartzen da, Xabale parean. Sartu eta zuloan aurrera doa. Bide luzea egiten du. Beheko plaza pasatzen du eta ia Etxe Txikin irteten da. Hango gizon batekin sagardo botila bat edaten ari da.

Goian agoazila eta jende asko zain eta zain daude. Azkenean beherantz abiatzen dira. Joxe Pottoko han aurkitzen dute lasai eta haserretzen dira. Esaten diote:

— Zer egin duk (duzu), mutil? Hire bila erotu gaituk (gara).

Orduan Joxe Pottokok erantzuten du:

— Mutilak, mutilak! Estoldan behera mila arratoi aurkitu ditut. Arratoiek ixten dute tuboak. Beste zikinik ez dago han. Denak aurrean ezin eraman eta asko nekatu naiz. Gorriak ikusi ditut. Arnasa eta atsedean hartzen ari naiz hemen. Ez al dut merezi?

## MIGEL MOKO

Migel Moko ere Ezkerraren sagardotegian egoten zen beti. Koadrila famatua egiten zuten. Ezkerra, Migel Moko, Manolo Baraibar eta abar. Behin, Migel Mokok lagunei esaten die:

— Gaur ez dut zuekin afalduko. Gaur afari gozoa daukat etxean eta hura jan behar dut.

Giltzurrunak edo horrelako zerbait dauka etxean. Lagunek esaten diote:

— Ondo dago. Joan eta jan. Gu moldatuko gara. Baina gero mutiko bati deitu eta esaten diote:

— Mutiko! Joan Aranbidera eta etxekeandreari esan: «Migelek ezin du etorri afaltzera. Nik eraman behar dut kazuela».

Migel Mokoren lagunak ederki afaltzen dute kazuela harekin. Migel etxera heltzen da eta andreari esaten dio:

— Non dago afaria?

Andreak erantzuten du:

— Ez al duzu, ba, zerorrek mutiko bat bidali, kazuelaren bila? Oraintxe joan da bere kazuelarekin kalera.

Migel Moko berehala ohartzen da:

— Madarikatua! Lagunak izan dira!

Amorrua hartzen du eta berriro kalera doa. Baina besteek dena amaitu dute eta kafeak hartzen ari dira. Atari danbateko handia eman eta aldegin omen zuen Migel Mokok.

## ERBIA, BASERRITARRA ETA JAUNA

Oiartzungo jaun bat baserri askoren jabe zen. Ehiztaria zen eta ehizan ibiltzen zen. Jauna ehizara doa goizean. Bide batez, baserriak ikusten ditu. Etxe batetik pasatzen da eta baserritarra lanean ari da. Jaunak esaten du:

— Egun on, gizona.

Baserritarrak erantzuten du:

— Baita zuri ere, jauna.

Jaunak: — Lanean ari al zara?

Baserritarrak: — Bai, jauna. Gure eskola hauxe da.

Eta zu?

Jaunak: — Ehizara irten naiz, baina ez dago gauza handirik.

Baserritarrak: — Ba, nik lehen erbi bat bidali dut zure etxera.

Jaunak: — Ah, bai? Eskerrik asko. Banoa etxera.

Jauna heltzen da etxera eta emazteari esaten dio:

— Gaur bazkari gozoa, ez?

Emazteak:

— Ez, ba. Beti bezalakoa.

Jaunak pentsatzen du:

— Nire emazteak erbia gatzetan dauka. Gauean izango da.

Gauean jaunak berriro esaten dio emazteari:

— Gaur afari gozoa, ez?

Emazteak esaten du:

— Zergatik esaten duzu hori?

— Erbia. Baserritarrak erbi bat bidali du gure etxera.

— Hona ez du inork erbirik ekarri —esaten du emazteak.

Jauna haserretzen da eta biharamonean baserrira doa. Baserritarrari galdetzen dio:

— Zer esan zenuen zuk atzo? Ez al zenuen bidali erbi bat gure etxera?

Baserritarrak erantzun zion:

— Bai, jauna. Erbi bat sasi artetik irten zen. Ikusten dut eta tiro bat botatzen diot. Baina ez dut jotzen. Orduan esaten diot: Zoaz jaunaren etxera. Ez al da heldu?

## EÑAÑI-REN GAITZAK

«Eñañi» oiartzuar xelebrea eta kurioa zen. Eñañik arrantzan egiten du. Zaletasun handia dauka. Gezurrak ere asko kontatzen ditu. Gehienez gauez ibiltzen da arrantzan, ezkutuan eta tranpan. Goardak badaki haren berri, baina nekez harrapatzen du. Eñañik barazkiak ere ostutzen omen ditu. Ostu edo hartu.

Behin Txikierdiko baratzean aurkitzen dute. Barazkiak hartzen ari da. Hango gazteek sagarrondo bati lotzen diote. Eñañi han geratzen da gau guztian. Sagarrondoari loturik dago gau guztian. Horma edo lei haundia egiten du arrats hartan. Biharamonean askatzen dute. Eñañi ia hotzak hila dago. Tabernara doa eta esaten du:

— Atera zerbait berogarria.

Tabernandreak esaten dio:

— Hotz handia kanpoan?

Eñañik erantzuten du:

— Ez hainbeste. Neuk hartu dut dena.

## **BEINER ETA MEDIKUA**

Garai hartan Beiner Oiartzungo aberats jauntxo bat zen. Behin Beiner gaixo dago. Medikua ekartzen diote. Nahiko zaharra da eta ia ezin du zutitu. Ohean dago. Medikua etortzen da eta ikusten du. Pixka bat arraskatzen du eta esaten dio:

— Hau ez da ezer, gizona. Baso bat hautsita baka-  
rrik. Berehala konponduko dugu.

Medikuak zirkulazio basoa esan nahi dio. Beinerrek ohetik erantzuten dio:

— Baso bat? Ez jauna, ez! Baxera osoa dago hautsi-  
ta, baxera osoa!

## **PUTETXETIK KONFESIORA**

Bi oiartzuar putetara joan ziren. Biak elkarrekin doaz. Gero garizuma da eta paskoazkoa egin behar dute. Biak konfesatzera doaz. Lagun batek dena aitortzen du, goitik beheraino. Laguna ere deklaritzen du. Ondoren hau ere joaten da, baina honek dena isiltzen du. Apaizak bekatua atera nahi dio, baina alferrik. Galdetzen dio:

— Aizu, Exteban! Aspaldian Bilbon izan al zara?

— Ez jauna.

Apaiza alferrik ari da. Azkenean galdetzen dio:

— Goxoa gustatzen al zaizu, Exteban?

Honek erantzuten dio:

— Bai jauna. Arrozesnea asko.

## **PILLIPOREN TXERRIA**

Pillipo oso gizon bromosoa da Oiartzunen. Erdi bertsolaria da eta esaldi eta pasadizo xeble asko omen ditu. Behin txerria hiltzen du etxean. Isilik hiltzen du, al baitariari esan gabe. Al baitariak kontu hartzen dio eta esaten dio:

— Ai Pillipo, Pillipo! Orain ere hil duzu zuk txerria aski isilik.

Pillipok erantzuten dio:

— Ez jauna. Horixe bai ezetz! Garraisi ederrak atera zituen hiltzerakoan.

## **BELTXA BURUGOGOR**

Oiartzuar bat kontrabandoan eta estraperloan oso tre-bea zen. Mendikoa zen. «Beltxa» esaten diote. Behin Errenteriara joaten da. Gaurko Xenpelarren enparantzan,

denda bat dago eta arropa zerbait erosten ari da. Barrutik Oiartzungo autobusa pasatzen ikusten du.

Bi aldiz pentsatu gabe, korrika abiatzen da. Atea kristalezkoa da eta itxita dago. Baina hark ate irekia ikusten du. Buruarekin atea jo eta mila puska egiten du. Oihuka doa autobusaren atzetik. Zer egin duen ez daki. Baina autobusik ez du galtzen.



## ORTZAIZE - NAFARROA BEHEREA

### ZENBAT BEHI

Laborari (nekazari) batek mutil bat hartzen du. Morroi bat hartzen du etxean. Mutila ez da burutik osoa. Nagusiak aproba bat egiten dio. Esaten dio:

— Mutil! Joan eta kontatu behiak.

Mutila joaten da. Hogeita hamar behi daude. Baina mutilak ez daki kontatzen. Apur bat egon eta itzultzen da. Nagusiak galdetzen dio:

— Mutil! Kontatu al dituzu behiak?

— Bai —erantzuten du mutilak—. Nire ustez badira hiru, lau edo bost.

### TXAKUR ALUA

Gizon batek Xermen du izena. Oso goiz joaten da mezatara. Ostatuan (tabernan) sartzen da eta ostatuko nagusiak esaten dio:

— Zu, Xermen. Nik zuri ardoa emango dizut eta zuk niri egurra xehatu.

— Bai, ongi —esaten du Xermenek. Xermenek beti baietz esaten du. Etxekoandreak galdetzen dio:

— Bukatu al duzu lana?

— Bai eta orain jana —esaten du Xermenek. Etxekoandreak bi arraultze eta ardoa ipintzen ditu. Xermenek xingarra (urdaiazpikoa) nahi du, baina han ez dago xingarrik. Orduan esaten du:

— Alua! Puta! Txakurra!

— Zer daukazu, Xermen? —galdetzen dio etxekoandreak.

— Txakur puta honek xingarra eraman dit!

## TXERRIA SALTZEKO

Etxe batetan senar-emazteak bizi dira. Emaztea zahar-turik dago. Ohean eri dago. Txerri bat daukate eta senarrak txerria saldu nahi du. Erosle bat etortzen da eta senarrak esaten du:

— Egon. Emazteari esan behar diot.

Antonio joaten da eta hauxe esaten dio emazteari:

— Mari! Txerriaren eroslea etorri da. Salduko al dut? Zuk ez duzu gehiago jango eta niretzat gehiegi da.

## ASTOAK ARRANTZA

Gizon bat beti elizara astoan joaten zen. Behin astoa gordetzen diote. Etxe zahar handi bat dago eta hantxe gordetzen diote. Gizona elizatik etxera dator eta astoa falta da. Gizona haserre dabil hara eta hona. Maldizioak botatzen ari da. Etxe zaharraren ondotik pasatzen da eta astoak arrantza egiten du. Gora begiratu eta han dago astoa, balkoira irtenda.

## ZALDIBIA - GIPUZKOA

### **BIANDETXE, JOSE FRANTZISKO**

Biandetxe Zaldibiko baserri baten izena da. Baserri horretan Jose Frantzisko bizi zen. Baina denek «Biandetxe» esaten diote. San Jose egunean bakarrik esaten diote Jose Frantzisko. Orduan Biandetxek esaten zuen:

— Urte guztian Biandetxe eta gaur Jose Frantzisko?  
Ni Biandetxe naiz.

### **HONTZA ALDAMIOAN**

Biandetxe eta lagun bat presa egiten ari dira. Zelaiederko presa egiten dute. Gerra aurretik zen hau. Pareta altu dago. Aldamioan daude Biandetxe eta laguna. Azpian zuloa dago. Putzu handia dago. Egun hartan Suegi baserria erretzen da. Txerri tratulari bat etortzen da. «Hontza» esaten diote. Hontza gau txori bat da. Hontzak esaten du:

— Egun on! Hortxe badago ɓaserri bat sutan.

Biandetxek galdetzen du:

— Zein tokitan?

Hontzak: — Hor gainean. Ez dakit Zaldibi ala Gaintza den. Muga samarrean behintzat.

Biandetxek eta lagunak ez dute aldamiotik ikusten. Hontzak aldamia saltatzen du, erakusteko. Orduan, aldamioa putzura erortzen da. Biandetxek esaten du:

— Hontza arina izaten dela, baina hau ez da oso arina.

## NESKAZAHARRAREN KREDITUA

Biandetxe neskazahar batekin hizketan ari da. Emakumeak senargai asko eduki ditu, baina neskazahar dago. Biandetxeri esaten dio:

— Zuk kreditua kendu didazulako nago ni ezkondu gabe.

Biandetxek erantzuten dio:

— Kristo Dios! Izan al duzu, ba, sekula?

## ZER FAMILIA?

Norbaitek Biandetxeri galdetzen dio:

— Zuk zer familia daukazu, Biandetxe?

Biandetxek erantzuten du:

— Suerte txarrekoa naiz ni. Andrea eta biok egun be-  
rean ezkondu ginen. Hark bederatzi ume dauzka eta nik  
bat ere ez.

## GAU ON ETA EGUN ON

Biandetxe hargin ona zen. Etxe berria egiten ari da.  
Han bazkaltzen du. Etxe hark sukalde oso iluna dauka.  
Leiho txiki bat dauka eta gainean mandioa edo zubia.  
Leihoa azpian dago eta egunez ere ilun dago sukaldea.  
Eguerdian, bazkaltzeko, Biandetxe sukaldera sartzen da  
eta esaten du:

— Gau on Jainkoak dizuela.

Gauean argia pizturik dago eta Biandetxek esaten du:

— Egun on Jainkoak dizuela.

Mutiko txiki batek esaten du:

— Baina Biandetxe, orain ez da eguna. Orain gaua da.

— Hemen oraintxe da eguna —esaten du Biandetxek.

## ZEANURI - BIZKAIA

### NESKA EDERRAREKIN DANTZAN

Bost edo sei gizon Urkiolara doaz. Dantzara doaz. Garai hartan neska ederrak eta lodiak gustatzen dira. Argalari kasurik ere ez. Adolfok neska eder bat lortzen du. Dantzan ari dira. Beste lagunek inbidia dute. Neska kendu nahi diote. Nola? Batek esaten du:

— Neuk dakit nola kendu.

Bikotearen ondora doa eta mutilari belarrira esaten dio:

— Hori ez da bizkaitarren dantza.

— Joan hortik —esaten du Adolfok—. Orain karlista naiz. («Bizkaitarra» = abertzalea).

## BALTZEOTIK PRESO

Garai hartan Zeanurin baltzeoa debekatua da. Baltzeoa dantza lotua da. Areatzan baltzeoa zilegi da. Arratia guztian zilegi da, baina Zeanurin ez. Areatzarrak etorzen dira eta baltzeoan egiten dute. Zeanuritarrak ere deskuidatzen dira. San Isidro eguna da. Biharamonean agoazila mutilen etxera doa. Mutilak preso eramaten ditu. Nora? Herriko alondegira. Mutil batek esaten du:

— Pozik preso joango naiz. Baina neskak eta mutilak batera.

Zeanurin orduan esaera normala da: «Preso bai, baina neska-mutilak batera». Gauza hauek ez dira zaharrak. Ez dira aintzina gertatu.

## AZUKREAK ERREKAN GARBITU

Zenauriko emakume batek azukre koxkorrak erosten ditu. Etxerantz doa. Bidean irrist egiten du eta azukre koxkorrak erortzen dira. Erori eta zikindu. Emakumea azukreak bildu eta erre kara doa. Zertara? Azukrea errekan garbitzen du. Eta denak urtu. Zeanuritarrak horrelako gauzak egiten dituzte. Horregatik «Kokoak» dira. Areatzarrek barre egiten diete.



Baina Areatzan ere gauzak gertatzen dira. Emakume batek kandela bat erosten du. Irrist egin eta erortzen da. Kandela hausten da. Jaiki eta errementaldegira doa. Zertara doa? Kandela soldatzera. Horregatik zeanuritarrek ere barre egiten diete.

## ZEBERIO - BIZKAIA

### ERLOJUA ZORATURIK

Zeberioa auzune batek Amezola du izena. Herritik urrun dago. Amezolatarrak gutxi jaisten omen dira herri-  
ra. Baina jaisten direnean, noiz igon? Noiz etxera itzuli?  
Tabernariak bildurra dute. Larunbat arratsalde batez, bi  
gizon jaisten dira. Tabernan sartzen dira eta egon eta egon.  
Noizbait etxeruntz abiatzen dira. Bidean doaz eta herri-  
ko erlojua entzuten dute: tan-tan-tan-tan. Goizeko lau-  
rak. Gizon batek esaten du:

— Erloju hori zoraturik dago. Ordu batak lau bider  
jo?

### EGUNKARIA ALDREBES

Ez daki irakurtzen. Baina ez da nornahi. Intelektual  
itxura maite du. Egunkaria erosten du eta trenean sartzen  
da. Gizona trenean doa eta egunkaria irakurtzen du, in-

telektualen moduan. Baina egunkaria aldrebes darama. Zeberioko apez bat ondoan gertatzen da. Gizona hala ikusten du eta adarra jotzen hasten da:

— Kaixo, zer ipintzen du egunkariak?

— Hemen, jauna, —esaten du zeberiotarrak— obispoen soldatak bakarrik datoz.

## **PUTETXERA USAINTSU**

Zeberiotar bat putetxera doa. Hori lan handia da eta taxisean doa. Tokira heltzen da eta ondo hartzen dute. Ordaintzen du eta barrura doa. Baina gizona zikin dago. Usain handia du. Behi usaina eta simaur usaina du. Ezer egiten hasi aurretik, gizona dutxan sartzen sute. Garbi-garbi uzten dute. Baina dutxa ondoren zer? Pitilnik ez zaio zutitzen. Ezin du tresnarik martxan jarri. Berriro taxisa hartu eta etxera doa. Ezer egin gabe doa. Ezer egin gabe, baina ederki garbitua.

## **SANTI TXAPELEN OILOAK**

Zeberioko Santi Txapel. Santiren etxe aurrean bidea dago. Bidearen beste aldean soro bat dago. Santiren oiloak hara pasatzen dira. Hango andrea haserre da. Behin andrea Santiren etxera etortzen da eta esaten du:

— Santi! Zuen oiloak beti gure soroan dabilta. Baratze guztia hondatzen dute. Oiloak zaindu edo kaiolan sartu. Gu ez gara lanean alferrik ari, zuen oiloentzat. Kalte handia egin dute.

Santik esaten dio:

— Ordainduko dizut. Igon gora.

Andrea gora igoten da. Santi Txapelek andreari hel-tzen dio eta ipurdia bero-bero egiten dio. Jipoi ederra ematen dio. Andreak garraisi eta txilio egiten du eskaileretan behera. Santi Txapel balkoira irteten da eta auzoei esaten die:

— Horra zer gertatu den! Andre gaixoa eskaileretan behera erori da.

Gero auzoan ere istilu handia dago. Batzuk andreari sinesten diote. Baina oiloak ez dira enteratzen eta lehen bezala jarraitzen dute.

## ERROKE LABADURE

Zeberiotar famatua zen hau. Baserria jaten du. Orduan kendu egiten diote. Osaba Amerikatik etorri eta baserriaz jabetzen da. Eta Errokeri ematen dio. Honek berriro ere baserria jaten du eta kentzen diote. Baserri hartan gizona lanean ari da. Erroke hurbiltzen da eta esaten dio:

— Gizona! Alferrik zabilta hor lanean. Hoiek gero ere neuretzat izango dira.

Errokek ez du lana gehiegi maite. Behin soroan zokil jotzen ari dira. San Joan ingurua da, ekainean. Ez da,

beraz, negua. Hatzamar bat lurean sartzen du eta andreari hots egiten dio:

— Mantoni! Artoa ereiteko, lurra hotz dago hemen.

## MENDIKOREN AURRERAPENAK

Zeberioko Mendikok zerratoki bat dauka. Beraz, mendi lanak egiten ditu. Langileak dauzka. Egun batzutan zer egiten du? Mendira joan eta langileak futboleant ipini. Kamioia egun guztian geldu. Langileek ez dakite futboleant. Mendikorentzat hobe. Horrela barre gehiago egiten du. Eta horrela botatzen dute eguna. Beti ez zuen hori egiten, baina sarritan bai.

Behin Mendikok basoko inarra ebaki nahi du. Mutil baten bila dabil. Mutil batek esaten dio:

— Bai, baina nik artoak erein behar ditut.

— Nik ere kamioikada daukat. Derrigor etorri behar duzu —ekiten dio Mendikok.

Mutila konformatzen da. Mendikok maleta ederra ipintzen du. Zer egiten dute? Hamaiketako egin et lo. Gero bazkaldu. Gero siesta ederra. Eta iluntzean etxera, mendira heldu gabe.

## ZEGAMA - GIPUZKOA

### GAU ON

Antonio begibakarra lanean ari da trenbidean. Pika-  
txoiaz harria jotzen du eta printza batek begian jotzen du.  
Momentu batez begi ona ere itxita dauka. Eta esaten du:

— Jaun-andreok, gau on.

### BIZIKLETAN OINEZ

Beste Antonio bat, Antonio igeltseroa da. «Antonio  
Bolas». Gezur eta ipuin handiak asmatzen ditu. Behin  
oinez doa eta bizikleta eskuan darama. Emakume batek  
galdetzen dio:

— Zer, Antonio? Zer dauka bizikleta horrek?

Eta Antoniok erantzun:

— Gaur ezin da gainean jarri. Gaur igel dago eta ge-  
ratu egiten da. (Igel: astemea ar eske).

## HEGAZKIN HARRIGARRIA

Zer Antonio? —galdetzen diote beste behin—. Gaur ez al dago bidaiarik?

Antoniok erantzuten du:

— Ez, ba. Gaur etxean egon behar dut. Atzo Valentzian izan naiz. Txalupan joan nintzen Teruelen zehar. Han hegazkin bat erosi nuen. Hegazkina etxera ekarri eta ganbaran juxtu-juxtuan sartu zen. Gaur goizean joan naiz eta ezin bidaian irten. Hegazkinak hiru hegazkinkume egin ditu.

## TXIMINIA NOLA EGIN

— Gaur fabrikan tximini bat egiten ari naiz —esaten du Antoniok. Lagun batek esaten dio:

— Ez da lan erreza izango hori.

Orduan Antoniok esaten du:

— Bai gizona! Lehenbizi konpasarekin goitik neur-tzen da. Gero harri bat edo bi goian jartzen dira. Horixe da zailena. Gero goitik behera, pixkanaka, erraz-erraz etortzen da tximinia.

## USOEN AZAINA

Behin Antonio ehizara joaten da. Usotara joaten da. Bueltan galdetzen diote:

— Zer, Antonio? Uso asko?

Antoniok erantzuten du:

— Askok bai, baina niretzat ez. Apuntatzen dut eta usoek antzeman. Igarri egiten dute. Orduan denek batera adarreki heldu eta hegan hasi dira. Pagoa ipurditik atera eta ihesi joan dira.

## EGURALDIA

— Bihar zer eguraldi egingo du, Antonio? —galdetzen diote.

Eta Antoniok erantzuten du:

— Bihar laino gainetik ona.



# ZUMAIA - GIPUZKOA

## GOMEZAGO

Zumaian *Olentzerori Gomezago* esaten diote. Gabon eguna da. Ordu biak jotzen dute. Orduan neska-mutilak aterik ate doaz. Ez doaz etxe guztietara. Haundikien etxeetan kantatzen dute: industrialak, erretorea eta horrela. Hauxe kantatzen dute:

— **Gomezago, buruandi, noiz harrapatuko arrai hori? Bart arratseko ordu bietan, itsasoaren erdian.**

12-15 urteko neska-mutilak dira. Gero madariak, in-txaurrak, bikuak, txakur handiak etab. botatzen zaie. Ez dute botatzen? Orduan berriro kantatu, bota arte.

Erretorearen etxean, neska-mutilek aparte jarri behar dute. Nahasi gabe. Eta ez dute *Gomezago* kantatzen. Elizako gabon kanta bat kantatzen dute. Erretoreak nesken aldera gehiago botatzen du. Mutilei txakur handiak eta neskei rubiak.

Zer da *Gomezago*? **Gomexa** arrai bat da. Buruaundia da. Itxusia baina ona da. Toki batzutan **itxas kabra** esaten dute. Olentzero mendikoa da: ikazkina, tripaun-

dia. Zumaian itsasora egokitu dute: *Gomezago Buruaundi*. Izena ere antzekoa da: *Olentzero* eta *Gomezaro* edo *Gomezago*. Gaur *Gomezago* hura galdu da.

## DON WENCESLAO

Zumaiako erretorea zen. Honen iloba batek **Cara al sol** egin zuen. Orduan Zuloaga pintoreak estudio bat dauka Zumaian. Gizon ospetsuak etortzen dira: Ortega y Gasset, Belmonte, Martinez Kleiser, etab. Zuloagak eta talde honek ospitalea egiten dute. Behin berbena handi bat antolatzen dute ospitalearen alde. Igandean Don Wenceslaok sermoi gogorra egiten du:

— Ospitalea ona da, baina diru hori txarra da.

Geroztik talde hori asko erretiratzen da. Zumaiara gutxi etortzen dira.

Adolfo jostuna edo Adolfo sastrea gizon liberala zen. Ez du elizarik zapaltzen. Eta amorante batekin bizi da. Don Wenceslaok sermoi gogorra egiten du. Eta meza ondoren manifestapena Adolforen etxera. Adolfo txakur bat dauka. Eta txakurrari Don Wenceslao izena jartzen dio. Don Wences.

Don Wenceslao eta Arrate alkatea ere ez dira ondo konpontzen. Errepublikak garaiak. Erretoreak agintarien bankua kentzen du elizan. Orduan alkateak kalea ixten du, barreraz eta altzarriz. Don Wenceslaok ezin du prozesiorik egin.

# GARIZUMA ETA ASTE SANTUA

## NON DAGO SAKRISTAU?

Herri batean, Ostirale Santu egunean, parrokoak sermoi haundia egin behar du. Teatro pixka bat ere bai. Sermoilari indartsua da. Hots eta zarata haundiak egiten ditu. Beste apaizak gurutze haundi bat ekarriko du. Aldare nagusiaren erdian ipiniko du. Orduan sermoilariak pulpitutik esango du:

— Ikusten al duzue gure Jesukristo? Nola dago gure Salbatzailea?

Aldare aurrean idulki bat dago, gurutzea sartzeko.

Beste apaiza badator gurutzearekin. Parrokoa bero ari da pulpitutik:

— Horra gure Jesukristo! Horra nola dagoen bera!

Beste apaizak esaten du:

— Hau ez da hemen sartzen!

Sermoilariak esaten du:

— Deabrua dabil hor. Deabruak ez du nahi gure salbamenik.

— Baina hau ez da hemen sartzen! —berriz ere beste apaizak.

Eta gurutze haundiak baibenak egiten ditu. Sermoi-lariak orduan esaten du:

— Non dago sakristaua?

Sakristaua etortzen da, baina ezin du gurutzerik idulkian sartu. Sermoilariak esaten dio:

— Nola egin duzu zuloa?

Sakristauak: — Nik ondo egin dut jauna. Deabrua ibili da hemen.

Sermoilaria: — Deabrua? Orain eutsi herorrek!

Beste apaiza joaten da eta sakristaua gurutzearekin geratzen da. Sermoilariak jarraitzen du. Oso sermoi luzea egiten du. Ordubetera esaten du:

— Hil da gure Jesukristo. Hil dute gure Jesukristo. Guregatik hil dute.

Sakristauak esaten du:

— Piztu arte hemen egon behar al dugu, Jauna?

## BOTA SUA

Beste herri batean ere Ostirale Santua da. Apaizak sermoi gogorra egin nahi du. Herritarrak bildurtu nahi ditu. Eskarmentu on bat eman nahi du. Seroreari (apai-zaren neskameari) esaten dio:

— Mari! Nik sermoian ifernuko sua esango dut. Zuk orduan goitik sua bota.

Hala egiten dute plana. Elizak ganbara dauka goian eta ederki prestatzen dute. Apaiza sermoia egiten hasi da. Berotzen ari da. Gero eta beroago ari da:

— Zuek, bekatari haundiok! Noiz onduko zarete?

Inoiz ere ez! Zigorra behar duzue! Jainkoaren zigorra!  
Ifernuko sua!

Orduan goitik sua erortzen da eta esaten du:

— Bota, Jauna! Bota sua, gure Jainko ona! Erre kristau txar guztiak.

Honela luzaro ari zen. Apaizak ekiten zion:

— Bota, Jauna! Bota gehiago!

Halako batean seroreak esaten du:

— Bukatu da, jauna!

Seroreari sugarria bukatzen zaio. Apaizaren sermoia ere hantxe bukatzen da.

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea .....	3
Abadiño-Bizkaia .....	5
Ahetze-Lapurdi .....	9
Ariatza-Bizkaia .....	11
Arrasate-Gipuzkoa .....	13
Ataun-Gipuzkoa .....	17
Aulestia-Bizkaia .....	23
Baigorri-Nafarroa Beherea .....	27
Bera-Nafarroa .....	31
Berriatua-Bizkaia .....	35
Dima-Bizkaia .....	37
Elgeta-Gipuzkoa .....	45
Elorrio-Bizkaia .....	49
Ereño-Bizkaia .....	53
Ezkio-Gipuzkoa .....	59
Gabiria-Gipuzkoa .....	63
Goizueta-Nafarroa .....	65
Heleta-Nafarroa Beherea .....	71
Iholdi-Nafarroa Beherea .....	73
Lauro-Bizkaia .....	75
Lazkao-Gipuzkoa .....	79
Oiartzun-Gipuzkoa .....	83
Ortzaize-Nafarroa Beherea .....	93
Zaldibia-Gipuzkoa .....	97
Zeanuri-Bizkaia .....	101
Zeberio-Bizkaia .....	105
Zegama-Gipuzkoa .....	109
Zumaia-Gipuzkoa .....	113
Garizuma eta Aste Santua .....	115



**EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.**

Esterlines, 10  
Tf. 426319  
Donostia

Pannecau, 52  
Tf. 254390  
64100 Baiona